

GARIZUMAKO II. IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko Aita guztiz santua,
zeure Seme maiteari entzuteko esaten diguzu;
emaiozu gure espirituari zeure hitzaren janaria,
gure sinesmen begiak argiturik,
pozez ikus dezagun zure aintza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Gn 22, 1-2. 9a. 10-13. 15 18

Sinesmenean gure aita dugun Abrahamen oparia.

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak Abraham aztertu nahi izan zuen eta honela esan zion: «Abraham!» Abrahamek: «Hemen nauzu». Eta Jaungoikoak berari: «Hartzazu Isaak, hain maite duzun seme bakarra, eta zoaz Moria lurraldera, eta eskaini iezadazu erre-opari, Nik esango dizudan mendi gainean».

Iritsi ziren Jaungoikoak esandako lekura; Abrahamek eraiki zuen aldarea eta pilatu egurra. Hartu zuen Abrahamek ezpata bere semea hiltzeko; baina Jaungoikoaren aingeruak hotsegin zion zerutik: «Abraham, Abraham!» Eta Abrahamek erantzun: «Hemen nauzu». Eta aingeruak: «Ez luza eskurik zeure semearen gainera; ez egin ezer. Ikusi dut Jaungoikoaren beldur zarela, ez baitidazu zeure seme bakarra ere ukatu».

Abrahamek begiak jaso, eta ahari bat ikusi zuen han atzean, adarretatik sastraka artean lotua; joan zen, bada, Abraham, eta aharia hartu eta huraxe eskaini zuen erre-opari semearen orde.

Berriz ere dei egin zion Jaunaren aingeruak zerutik Abrahami, esanez: «Hala Ni Jainkoa! –dio Jaunak–, horrela egin duzulako, zeure seme bakarra ukatu ez didazulako, bedeinkatuko zaitut; eta zure ondorengoak, zeruko izarrak eta itsas bazterrean dagoen hondarra bezain ugari egingo ditut; eta zure ondorengoak, beren etsaien hiri ateen jabe egingo dira; eta lurreko herri guztiak bedeinkatuak izango dira zure ondorengoetan, nire esana egin duzulako».

ERANTZUN SALMOA: Sal 115, 10 eta 15. 16-17. 18-19

**R/. Ibiliko naiz Jaunaren aurrean,
bizien lurrean.**

«Ni bai dohakabe» nioen arren,
baneukan itxaropen.
Jaunaren begietan balio haundikoa
Haren zintzoen herioa. R/.

Zure morroi nauzu ni, Jauna,
zure morroi eta zure neskamearen umea,
askatu dituzu nire kateak.
Eskainiko dizut gorets-oparia,
deituko dut, Jauna, zure izena. R/.

Emango dizkiot Jaunari zin egindakoak,
herri guztia begira dagoela.
Jaunaren etxeko atarian,
Jerusalen, zure erdian. R/.

II. IRAKURGAIA: Erm 8, 31b-34

*Jaungoikoak bere Semeari berari
ez zion barkatu.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Jaungoikoa gure alde badugu, nor gure aurka? Bere Semeari berari barkatu ez zionak, baizik eta gu guztiontzat eman zuenak, nola ez digu Harekin batera dena guri emango? Nork salatuko ditu Jaungoikoak aukeratutakoak? Jaungoikoa da zuzen egiten duena. Nork gaitzotzat eman? Jesu Kristok? Hil zenak? Oraindik gehiago, piztu ere zenak, Jaungoikoaren eskuin aldean dagoenak eta gure alde otoitzean ari denak?

EBANJELIOA: Mk 9, 2-10

Ebanjelio aurreko txatala: Ik. Lk 9, 35

V/. Hodei distiratsutik Aitaren ahotsa entzun zen:
«Hau da nire Semea, nire Aukeratua.
Entzuiozue».

Hau da nire Semea, nire Maitea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi goi batera igo zen haiekin bakarrik; eta hiruen aurrean antzaldatu egin zen. Haren jantziak distiratsu, zuri-zuri bihurtu ziren, inongo zuritzailek zuritu ez ditzakeen bezala. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan.

Pedro mintzatu zen orduan, eta honela esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Hiru txabola egin ditzagun: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen ere; zeharo beldurrak harturik baitzeuden.

Orduan hodei bat sortu zen eta estali egin zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen: «Hau da nire Semea, nire Maitea. Entzuiozue». Eta halako batean, beren ingurura begiratu, eta ez zuten Jesus besterik ikusi berekin.

Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori gorde zuten, eta elkarri galdetzen zioten, zer izan ote zitekeen «hilen artetik bizte» hori.

Oparigaien gainekoa

Eskaintza honek, Jauna, gure bekatuetatik garbi gaitzala,
eta zure zerbitzarien gorputz-arimak santu egin,
Pazko jaiak ospatzeko gai izan gaitzen.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia honetan zure Semearen gorputza hartu dugunok
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
lur honetan gaudela
zeruko ondasunen jabe egin gaituzulako.
Jesu Kristo.